

Bezero agurgarria:

Jakinarazi nahi dizugu zure kaudimen finantzarioa aztertu ondoren blokeatu egin dugula zure kreditu-txartela edo-kontua, behin behinekoz*, eta beraz, hemendik aurrera ezingo duzula eragiketa gehiagorik egin zure kreditu-txartelarekin edo -kontuarekin. Neurri horrek ez du eraginik edo ez du aldatzen zure kreditu-txartelaren edo -kontuaren gainerako baldintzarik, aplikatu aurretik hartutako zorrari dagokionez. Gogoan izan ezazu aipatu neurriak zure gastuak eta zorpetzea ez handitzea duela helburu, uste baitugu zailtasunak izan ditzakezula zure ordainketa-betebeharrei aurre egiteko.

Edozein zalantza edo kontsultarako, gurekin beti bezala harremanetan jar zaitezke gure harremanetarako kanalen, telefonoz, webgunearen edo app-aren bidez.

* Neurri hori jasota dago txarteldun edo txartel gabeko zure Kreditu Kontuaren Kontratuan, eta indarrean dagoen lege-araudiaren arabera aplikatzen dugu (Ordainketa-zerbitzuei buruzko 19/2018 Errege Lege Dekretuaren 40.2 artikulua honako hau ezartzen du: "2. *Betiere esparru-kontratuan hala adosten denean, ordainketa-zerbitzuen hornitzaileak beretzat gorde ahal izango du ordainketa-tresna blokeatzeko eskubidea ordainketa-tresnaren segurtasunarekin erlazionatutako eta objektiboki justifikatutako arrazoiengatik, baimendu gabeko erabileraren susmoarengatik edo hori iruzurrez erabiltzeagatik, edo, kreditu-lerro batera lotuta badago, agindu-emeleak bere ordainketa betebeharrari aurre egin ezin dion arriskuaren hazkunde esanguratsua gertatzen bada.*").